

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GORBEIALDEKO KUADRILLA

#### Lehendakariaren dedikazio partziala eta ordaindua

Erakunde honek, Kuadrillako Batzarrak 2020ko otsailaren 19an egindako bilkura berezian, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Onestea, 2020tik aurrerako ondorioekin, erakunde honetako lehendakari Agustín Otsoa Eribeko Landaren ordainsari eta dedikazio araubidea. Hau izango da:

Dedikazio partziala ehuneko 50ean.

2020. urteko zenbatekoa: 24.610,04 euro.

Zenbateko hori urte naturalari dagokio.

Zenbateko hori 14 soldatatan ordainduko da, urteko 12 hilabeteetan bana eta gainerako biak ekainean eta abenduan.

Bigarrena. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean alta ematea. Kuadrillak bere gain hartuko du enpresaren parteko kuotak ordaintzea.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn eta erakunde honen egoitza elektronikoan argitaratzea.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Murgia, 2020ko martxoaren 4a

*Lehendakaria*

*AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA*